



Adolfo Morais Ezquerro, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak, 2015eko abenduaren 1eko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroez bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia egiten duen aginduan, EHAA 233 zk. abenduak 7, 2016ko martxoaren 1eko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Aginduaz aldatua, EHAA 44 zk, bere 12. artikuluan ezarri bezala, eta batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, honakoa

## EBATZI DU

Lehenengoa.- Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroez bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzak ematea, guztira 263.425 euro. Onuradun bakoitzari emandako diru-laguntza emandakoen zerrendan jasota adieraztea.

Bigarrena.- Ukatutakoen zerrendan jasotakoei laguntzak ukatzea.

Hirugarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 7an

ADOLFO MORAIS EZQUERRO  
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA